



ADOS?

	 15 min
MATERIALA	
- Aulkiak	

AZALPENA

Borobilean aulkietan eserita, edonori galdetzen zaio:

- ADOS AL ZAUDE ZURE BIZILAGUNEKIN?
- EZ
- NOREKIN TRUKATUKO ZENITUZKE?
- MIKELEN BIZILAGUNEKIN.

Orduan aipaturiko lauak lekuz aldatu eta zutik dagoena esertzen saiatzen da.

- MAITE POZIK AL ZAUDE ZURE BIZILAGUNEKIN?
- BAI

Orduan lekuz denak aldatu.



BI GURPILAK

	 20min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Pareek borobil bat osatzen dute, bizkarrak elkarri emanda dituztela. Ez pareek beste borobil zentrokide bat osatzen dute aurrekoei begira, bikoteak osatuz.

- DESKRIBA IEZAIOSUE ELKARRI NORK BERE JAIOTERRIA.

Solasaldia amaitu eta txalo bat entzutean, kanpoko gurpila leku bat mugitzen da eskuinaldera.

Antzeztu:

- SOROSLEA ETA ITOTZEAR DAGOENA
- NOTA TXARRAK AITARI
- LOTERIA TOKATU ZAION BIKOTEA
- KOTXEZ JO DUZUE ELKAR.



BILA EZAZU...

	 20min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Denen artean inkesta bat osatzen dugu. Partaideek ematen dituzten ideiak arbelean idazten ditugu, gero norberak paper batean idatz ditzan. Behin inkesta osatu dugularik, zutitu eta galdezka hasten gara, galdera bakoitzaren ondoan izen bat edo izen-pegatina bat eransten dugu:

1. Bila ezazu ATZERRIAN EGON DEN NORBAIT.....
2. Bila ezazu ZURE ZAPATA ZENBAKI BERA DUEN NORBAIT.....
3. Bila ezazu DUTXAN ABESTEN DUEN NORBAIT.....



BIOGRAFIAK

	 20min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Zure begi kolore berdineko bikotea bilatu. Elkarren ondoan eserita, batak besteari kurrikulum eta biografia xume bat aditzera eman.

Ondoren, nork bere bikotea aurkeztuko digu.

Jolas hau zenbat eta maizago egin, gero eta interes handiagoa dugu besteen datuekiko. Hau da sozializazioa, mintzairaren oinarria.



BOST HUTSUNEAK

	 20min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Binaka jarrita – altueraz edo-, elkar arakatu minutu batez.

Ondoren, bizkarra elkarri eman eta 5 aldaketa egin zure janzkeran: erlojua eskuz aldatu, zapatan lokarriak askatu, botoiren bat askatu, prakak tolestu, ilea moldatu ...

Halako batean, bueltatu eta elkarri aldaketak azaldu.

ALDAERAK

Norbait kanporatu eta denen artean kanporatu dugun horren janzkera eta jantzi koloreak antzeman.



IZEN OIHARTZUNA

	 20min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA

Borobilean eserita nahiz zutik, erdialderantz kulunka erritmoa markatzen dugu, besoa luzatuz zerbait botatzeko gisan.

Hori eginik, norbaitek oihuren bat bota eta besteek oihartzuna egingo dute.

Jarraian nork bere izena aldarrikatuko du amildegian eta denon oihartzuna jasoko du.

Norberaren onarpena eta taldearen kohesioa da batez ere lantzen duguna.



SOKA EZ DEN SOKA

	 15 min
MATERIALA - Psikomotrizitaterako soka bat	

AZALPENA

Soka, soka ez ezik, zer izan daitekeen asma dezagun:

- a. Irakasleak ikasle bati emanda: diadema bat
- b. Ikasleen artean elkarri emanda: adb.: suge bat
- c. Borobilean eserita ondoan dagoenari emanda, ordena jarraituz, hartu duenak iragarri egin behar du bestearen asmaoa. Hasieran, esan eta antzezten dute. Gero mimikaz soilik eta besteak zer den asmatu.

ALDAERAK

Tresnak aldatu: EZABAGAILUA, KOMUNEKO PAPERERA, ARKATZA, ...



TALDEKA

	 15 min
MATERIALA: Ø	

AZALPENA



Ikastalde osoa taldeka banatuko da gure aginduen arabera:

Taldeka zaitetze ...

- Zapata kolorearen arabera
- Esku tamainaren arabera
- Begi kolorearen arabera
- Adinaren arabera
- Jertse kolorearen arabera...



TORI KLIK BAT

	 15 min
MATERIALA - Objekturen bat eskuz esku pasatzeko.	

AZALPENA

Borobilean eserita, nork bere eskuinekoari "zera" bat:

- Tori klik bat?
- Nola?
- Klik bat!
- (hartuz gero) Eskerrik asko!

Objektua eskuz esku doa, baina "nola?" galderaraino joan behar du ahoz aho beti.

Ondoren ezkerrekoari beste "zera" bat luzatzen zaio:



- Tori klak bat.

ALDAERAK

Berdin jolas liteke: tori MUSU bat, OSTIKO bat.



ZEHARO MAITEMINDURIK NAGO

	 15 min
MATERIALA: - Aulkiak borobilean jarrita	

AZALPENA

Borobilean eserita gaudela, aulki bat kendu eta taldearen erdian zutiturik:

- ZEHARO MAITEMINDURIK NAGO ... oinetako zuridunekin!
- Orduan aipatuek tokiz aldatu behar dute arrapaladan, erdian zutik zebilena esertzen ahaleginduko delarik. Zutik geratzen denak:
- ZEHARO MAITEMINDURIK NAGO ... ahoa dutenekin!

Erreparatu haurren kokapenari, arnasketari, begiradari, hizkerari, ... hitz batez haurren emozioei.



ZUM! NIIK! KATAKLOK!

	 15 min
MATERIALA:Ø	

AZALPENA

Borobilean eserita, ZOOM esaka, eskuin aldera pasatzen dugu mezua, lepoa elektrikoki biratuz: Zum! Zum! Zum! Zum! ...

Ezker aldera joan nahi izanez gero ordea, Niik oihua erabiliko dugu: Zum!
Zum! Niik! Niik!...

Era berean badugu beste norabiderik: KATAKLOK! aldarrikatuz gero,
aurrez aurre dagoenarengana joko dugu: Zum! Zum! Niik! Niik! Zum! Kataklok! ...

ALDAERAK

Beste onomatopeia edo talde fonikoekin ere jolas daiteke: Bra! Bra! Tsa! Tsa! ...